

## **HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKARATZEKO DIRULAGUNTZAK**

### **2026**

**DIRULAGUNTZAK BAZTANGO ELKARTEEN, MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN EDOTA ENPRESEN HIZKUNTZ PAISAIA (kanpoko eta barruko errotuluak, irudi korporatiboa eta web guneak) EUSKARAZ EDO EUSKARAZ/GAZTELANIAZ JARTZEKO.**

Baztango Udalak euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko konpromiso irmoa du. Izan ere, euskara Baztango hizkuntza izanik ere, hainbat gizarte esparrutan toki txikia du eta egoera ahulean dago.

Horregatik, Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak Udaleko zerbitzu guztietan ez ezik udalerriko gizarte bizitzan ere euskararen erabilera piztea eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea ditu xede.

Gainera Baztango Euskararen Plan Estrategikoan jasota dago helburu gisa: Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan herritarrei euskaraz arreta bermatzea eta erabilera areagotzea. Horretarako ekintza zehatza “Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntza eman eta jarraipena egin” izanik.

Ahalegin horren barnean udalerriko hizkuntza paisaian eragitea dago eta helburu horretara zuzendurik dago honako dirulaguntza ematea. Dirulaguntza arautzeko Baztango Udalak honako baldintza eta irizpide hauek onartu ditu 2026ko maiatzaren 21ean Tokiko Gobernu Batzordean.

### **OINARRIAK**

#### **1- Xedea**

Deialdi honen xedea da errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskalduntzeagatik entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Dirulaguntza hauen arrazoia diren jarduerak euskararen gizarte erabilera sustatu eta hedatzea izanen dute berariazko helburu.

## **2- Dirulaguntzaren zenbatekoak eta gaiak**

Dirulaguntza hauek 2026. urteko aurrekontuen dirulaguntzen sailaren kargura joanen dira, zehazki, merkataritzako errotuluak euskaraz paratzeko dirulaguntzen deialdira. Horretarako 2.000 €ko aurrekontua dago.

Dirulaguntzak errotulazio elementu bakoitzari aplikatuko zaizkio.

Aurrekontuetan aurreikusi den diru-kopurua, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere. Zatiketa euskara hutsezko eta ele biko kategorietara aurkeztu diren eskaeren proportzioaren arabera egingen da.

Dirulaguntza errotulazio elementu hauei dagokie:

### **2.1 Errotuluen kasuan:**

- a. Kanpoko errotuluei.
- b. Toldoei, errotulu funtzioa egiten badute.
- c. Erakusleihoetako errotulazioari.
- d. Establezimenduaren barruko errotulazioari, jendaurreko gunean kokatuz gero.
- e. Atarien ondoko profesionalen plakei.
- f. Ibilgailu komertzialen errotulazioari.

Euskara hutsean idatzitako errotulazio elementuek sortutako gastuaren % 100 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez 500 €.

Euskaraz eta erdaraz idatzitako errotulazio elementuek, betiere euskarari lehentasuna emanik, egindako gastuaren % 25 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez 250 €.

### **2.2 Irudi korporatiboa**

Irudi korporatiboa euskara hutsean eginez gero, sortutako gastuaren % 100 bitarteko dirulaguntza jasoko duten, gehienez ere 350 €.

### **2.3 Irudi korporatiboaren kasuan:**

- a. Kartazalak.
- b. Paper menbreteduna.
- c. Bisita-txartelak.
- d. Identifikazio-zigilua.

- e. Produktuak biltzeko papera.
- f. Poltsak, kutxak.

Elementu hauetako testua euskara hutsez jarriz gero, sortutako gastuaren %100 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez ere 120 €.

#### **2.4. Webguneen kasuan:**

- a. a. Euskarari lehentasuna ematen dioten webguneak. Sortutako gastuaren % 50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 350 €.
- b. Webgune nagusia beti euskaraz irekitzen da eta erabiltzaileari aldiro, hala nahi badu, hizkuntzaz aldatzeko aukera ematen dio. Sortutako gastuaren % 50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 250 €.

Dirulaguntza jaso ondoren, webgunea euskaraz izaten segitzeko konpromisoa hartu behar da. Ez da onartuko Webgunea berriz erdara hutsean paratzea.

### **3- Onuradunak**

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak eskatzen ahal dituzte helbide soziala Baztanen daukaten pertsona fisiko edo juridikoek, baita bere jardura ekonomikoa Baztango udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek ere.

#### **3.1- Pertsona edo entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:**

- a. Zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean edukitzea.
- b. Baztango Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.
- c. Errotulua euskaraz idaztea, zuzen eta egoki. Euskarazko testuek piktogramak edo irudiak izan ditzakete lagun.
- d. Errotulua ele bitan idatziz gero euskarari lehentasuna eman behar zaio.  
Lehentasuna honela ulertuko da:
  - errotuluko testuak dituen hitz gehienak euskaraz egotea. Hori ebazteko bi elementu hauek ez dira aintzat hartuko: 1) izen bereziak (antroponimo, toponimo nahiz markak); eta 2) euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu ahoskatzen diren eta soilik grafia desberdin duten hitzak (erraterako: arkitektura, informatika, enpresa...).
  - hizkuntza bat goitian eta bertzea behegian paratuz gero, euskara goikoa izatea;
  - hizkuntzak elkarren alboan paratuz gero, euskara ezkerrekoa izatea;

- euskarazko testuaren letraren neurria edota lodiera erdarazkoarena baino handiagoa izatea;
- euskarazko testuaren kolore kontrastea erdarazkoarena baino hobea izatea.

**3.2-** Onuradunek errotulazio elementuak euskaraz paratzeko gastua deialdirako eskabideak aurkezteko epea akitzen den urte naturalean egina izan behar dute.

**3.3-** Ez da diruz lagunduko:

- a. Izen bereziren bat (jabearen izena edo abizena, edo toponimo bat) baizik ez duten errotuluak. Langintza edo jarduera profesionalaren adierazleari begiratuko zaio.
- b. Euskaraz gaizki idatzirik dauden edo oker gramatikalen bat duten errotuluak. Hizkuntza zuzentasun eta gramatikaltasun irizpideak Euskaltzaindiak ezarritakoak dira.
- c. Beharrezko Udal baimenak ez dituzten elementuetako errotulazioak.

**3.4-** Baztango Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, errotulazioa euskaraz paratu nahi dutenei itzulpen eta aholkularitza zerbitzua doan eskainiko die.

**3.5-** Udalak eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emanen dio errotulazio elementu jakin bat euskaraz paratzeko dirulaguntza. Bere aldetik, dirulaguntzaren onuradunak konpromisoa hartuko du diruz lagundutako errotuluak hortik aitzina hala izaten jarraitzeko, inoiz erdarazko errotulua paratzeko aukera guztiz bazterturik.

#### **4- Deialdiaren publizitatea**

Deialdi hau honako hauetan iragarriko da: Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean.

#### **5- Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko irailaren 30ean, 14:00etan** akituko da.

#### **6- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Baztango Udaletxeko erregistroan:

- a. Dirulaguntza eskabidea, honekin batera doana, behar bezala beterik.
- b. IFKren fotokopia.
- c. Fakturaren fotokopia eta ordainketaren egiaztagiria, biak. (2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30 bitarteko faktura datarekin)

- d. Errotuluaren edo irudi korporatiboaren argazkia edo webgunearen esteka.
- e. Onuradunak zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.
- f. Aitorpena, administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza ororen gainekoa, deialdi honen xedearekin zerikusia duena. Eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden adierazi beharko da. Azkenengo kasu horretan kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hori dena zuzenean edo 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea ezartzen dituenak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izanen da. Hona helbide postala eta gainerako datuak:

Baztango Udala  
Foru plaza, zk.g.  
31700 Elizondo

#### **7- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea**

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun natural emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

#### **8- Ebazpena**

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzean ahalmen hori eman dion organoak hartuko du. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

#### **9- Dirulaguntzaren ordainketa**

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren; banku transferentziaz egingen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

## **10- Bateragarritasuna**

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

## **11- Dirulaguntzen itzulketa**

Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondoan azaltzen diren kasuetako baten bat gertatzen bada:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c. Dirulaguntzaren xedea den jarduerak, errotulazio elementuak euskaraz paratzeak, bertze dirulaguntzaren bat izan badu eta gehiegizko finantzaketa gertatzen bada.
- d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

## **12- Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

## **13- Datuen babesa**

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

## **14- Aplikatuko den araudia**

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

## **15- Errekurtsoak**

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:

- a. Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurrizten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

- b. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiko administrazioarekiko auzien Epategiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

## Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntza Eskabidea

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak:
NAN:
Helbidea:
Posta kodea eta herria:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:
Kontu korrontearen zenbakia ( <b>IBAN kodea</b> eta 20 digitu):
<b>Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko egindako gastua, guztira:</b>  _____ €

(Data eta sinadura)

## HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZA: ZINPEKO AITORPENA

---

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aitzinean dituenak, baita Baztango Udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere.
- Helburua edozein izanik, dirulaguntza eskatu diela beheitiko erakunde hauei:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>EGOERA</b> (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.
- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Baztango Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)